

Pili Yoldi

KAZETARIA

Udako ajea

Ez dakit ze demontre gertatu den Nafarroan uda honetan, ez baitut nire jaioterria errekonozitzen. Bestondoaren ajea ez bada, ez dakit umorista baten zintan galduta nagoen edo esnatu ezinik nabilen amets gaiztoaren zurrunbiloan. Bestela, norbaitek azal ditzala aurtengo lehorte garaian nafarroak bizi izan ditugun hiru fenomenoak, oso normalak –paranormalak?– ez direnak.

Bat: harritu bagintuen UPyDko ordezkariak Miguel Sanz lehendakariarekin paktua egiteko asmoak, aho bete hortz gelditu ginen Nafarroako PP eta CDN elkarri keinuka ikusi genituenean. Alliren alderdikoak UPNtik ezkerreko atetik haserre atera orain dela ez dakit zenbat urte, eta egun hauetan PPrekin besarkatu, eskuineko leihotik sartzen. NaBairen garaipenaren arriskuaren kontra dela diote, baina *Besaulki galduren bila* pelikulan daudela ematen du.

Bi: Nafarroako Kutxa suspendituta Europak egin duen azterketan. Zaplastada galanta Nafarroako ari-mari. Kutxa, Volkswagen eta Osasunarekin batera Erresumaren ikurrak, foralitatearen zutabeak. Nafarroako Kutxa, gure jauntxoaren eremua eta nafar guztion bizkarrean ditugun maileguen emaile nagusia, ez ditu Europako bankeroen frogak gainditu herritar xumeok, hori bai, oso ongi ulertu ez omen ditzakegun zenbait arrazoiengatik. Eskerrak bai Kutxak berak bai



JOSU SANTESTEBAN

Norbaitek azal ditzala aurtengo lehorte garaian nafarroak bizi izan ditugun hiru fenomenoak, oso normalak –paranormalak?– ez direnak

nafar egunkaririk boteretsuenak Banca Cívica burua den izena garbitu dioten, are gutxiago konprenitu ez ditugun beste argudio batzuk bozgorailuetatik sakabanatuz: gaizki egin zegoela azterketa, analistek ez dituztela gauzak ongi neurtu eta –lasai herria!– babes berria lortu omen duela Kutxak oso izen bitxia duen kanpoko *padri-no* berriarekin, JC Flowers, alegia. Ez dakit zergatik, baina honekin ikasle garaian azterketetan nota txarrak atera eta gero etxean erabiltzen genituen azalpenak etorri zaizkit burura.


Hiru: zezenen alde edo kontrako eztabaidan gabiltzala, gure etorkizuneko lehendakari andreak nafar *gaiztoak* (zezenketen kontrakoak) edo *onak* (aldekoak) bereiztearekin aski ez balitz, animaliak beraiek liskarrean sartu dira bete-betean eta beren benetako iritzia argi eta garbi uzteko modurik hoberena erabili dutelakoan nago: *Quesero* izeneko zezenak Tafa-

llako plazako harmailetara salto egin zuen, jendea izutzen eta zauritzen. Eta Valtierra behi batek ihes egin zuen, eta oraindik bere bila ari omen dira.

Azalpen bila egutegia miatu eta bertan aurkitu dut: Kutxarena, Sanferminak pasa eta gero esan ziguten; Rosa Diezen itzalaren agerpena, Irurtzongo festetan; CDNren eta PPren argazki beroa, Donostiatik bueltan, eta Tafallako zezenarena, azken gaupasari bukaera eman gabe. Esaten nuena, ajearen errua. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Hego haizeaz maite-minduak. Bera dute garraio, aurretik harra-patutako ororen kiskaltzaileak. Urakanek ez bezala, ez dituzte bataiatzen, izenga-beak ditugu. Ez-ustea dute arma inongo meteok iragartzen ez dizkigun horiek. Atez ateko zaborra biltzeak kontenedorea izartu digu, lehenengo lauaz gain bosgarrena errege izendatu dutelarik. Ez da PVCa sugai aproposena, zaborra ere ez, hala ere, uda honetan sutan eman dituzte ale suelto batzuk egoera politikoa hego haize nahaspilari. Eta honi bai, su-emate hauei izena ezarri diete. Bakarra. Kale borroka. Identifikatu gabeko

Udako suak

su-emaile hauei, lehen kontenedore erretzeaz bat abertzale gazte egituratuen aspaldiko estrategiaren

marka ezarri diete. Errazegi. Ezker abertzaleari hauteskundeetan parte hartu dezan eragotzi diotenak ditugu bataiatzaileak, eta nago, jendarteak madarikatu dezan egin dutela propio, besterik gabe hobendun joz. Eta jada zimurretan sartua, ez dut sinesten gure gazteak tamainako ergelak, dorpeak eta idiotak direnik etsaiari hogeita hamaika eskura hain merke emateko. Norbaitek inkontrolatuak direla esan du publikoki. Niri, eskarmentuak diost, herri honetan inkontrolatuak beti ere soldatapekoak izaten direla, ugazaben morroiak. ■